



Bilbide laburra izan arren, festak egonkortu direla uste dute antolatzaileek. **BUENAVISTAKO JAI BATZORDEA**

Jai giroan murgilduta, auzunea biziberritzeko eta josteko 48 ordu

Lau urte dira Buenvistako auzo elkarteak garai batean inguruan egiten ziren jaiak berreskuratu zituela. Hala, bizilagunen arteko harremanetan sakontzeko aukera eta tokian bertan egiteko jarduerak ez dira faltako gaurtik igandera bitartean.

📍 Maitane Aldanondo Gabilondo

Asteburu luze eta beteko jaiak da Buenvistakoa. Logela auzune izaera gainditu, guneari bizitasuna eman, eta bizilagunen arteko harremana estutu nahian, 2022an berreskuratu zituzten ekainaren 13an den San Antonio egunaren bueltako festak, bi hamarkadako etenaren ondoren. Aurtengoak bertan dira. Gaur iluntzean eztanda egingo duen txupinazoak piztuko

ditu jaiak eta jardueraz betetako 48 ordu geroago itzaliko dira, urtebetez.

Funtsean, aurreko urteen egitura mantenduko dute, aldaketa txiki batzuekin. Esaterako, Donostia Kulturak, pailazoak beharrian, *Munduari itzulita 80 egunetan* antzezlanak ekarriko du. Halaber, udalaren Aurrekontu Parte Hartzaileak programari esker, ping-pong eta saskibaloia kantraxak eraiki dituztela aprobetxatuta,

ping-pong txapelketa antolatu dute. Saskibaloikorik ez dute egingo, lanak aurreikusitakoa baino gehiago luzatu direlako; baina datorren urtean txapelketa hori ere barneratzeko asmoa dutela adierazi du jai batzordeko kide Diego Moranek.

Aurrekoetan bezala, herri afaria egingo dute gaur, norberak berea eramanda. «Bakoitzak bere janaria jaisten du etxetik, izan kazolak, pizzak zein ogitartekoak, eta oso giro sana sortzen da», argitu du Moranek. Aurten, lehenengoz, gaia jarri diote: 1980ko hamarkada. Hala, ondoren, Osto DJ-ak girotutako festa egingo dute, hain zuzen ere, hamarkada horretako musikaz betea. Hori dela eta, auzotarrak moztortzera animatu ditu jai batzordeak.

Haurrak, ardatz

Jarduerak aukeratzekoan, batez ere, haurrak hartzen dituzte kontuan. Horregatik, txikiak ez dute aspertzeko aukerarik izango datozen egunetan: buruhandiak hiru egunetan irtengo dira, jolasak, apar festa,

txokolate jatea, txiki diskoa... Gaur bertan Julen magoaren *Xiñesteziña* ikuskizunarekin txunditzeko parada izango dute.

1980ko hamarkadan girotuta-ko herri afari autogestionatua eta festa egingo dituzte lehen gauean. Mozorrotzera deitu dituzte auzotarrak

Hiri kanpoaldeko auzo berri hau lo auzoa da funtsean. Ez dauka merkataritza handirik, baina dagoen apurra buru-belarri inplikatzeko da jaietan. Elkarlan hori ezinbestekoa da auzoa pixka bat aktibatzeke eta giroa sortzeko. Adibidez, tailerrak argindarra jartzen die antolatzaileei eta masaje zentroak bingoan zozkatzeko abonua eman dizkie. Berrak adinekoen egoitzak ere beti jartzen du bere aletxo, oraingoan, larunbat arratsalde parteko afari-meriendarako txorizoa eta hirugiharra ordainduko ditu. Sardinak prestatu izan dituzte parrillan, baina aurten beste aukera horren alde egin dute, eta harrera ezin hobea izatea espero dute.

Hazi eta bizi

İbilbide laburra izan arren, Buenavistako jaiak egonkortu dira eta auzotarren artean ikusmina eragiten dute. Hala, apiriletik aurrera etorriko denari buruz galdetzen hasten omen zaizkiela gogoratu du Moranek. Auzo elkartearen barruan, hiru lagun arduratzen dira egitarauaren antolaketaz, baina, gero, jarduerak aurrera eraman behar dituztenean, ez zaizkie falta izaten laguntzeko prest dauden eskuak. Hain zuzen ere, inplikazio hori da, Moranen esanetan, behar handienetako bat, jaietz harago ere, «auzoari buelta bat emateko, haz dadin eta bizitza pixka bat gehiago izan dezan».

Harremanak estutu eta elkarrekin ospatzeaz gain, asteburu luze hau auzo elkartearen lokal berria ezagutzera emateko ere baliatuko dute. ●



OSTIRALA 12

19:00

Txupinazoa buruhandiekin.

19:15

Julen magoaren *Xiñesteziña* ikuskizuna.

21:00

Herri afaria autogestionatua.

21:45

Osto DJ-a, 1980ko hamarkadako festa. Animatu eta etorri mozorrotuta.

22:45

Zezensuzkoa.

LARUNBATA 13

11:00

Jolasak haurrentzat, Altzalore aistialdi taldearen eskutik.

12:30

Kalejira buruhandiekin.

16:15

Apar festa.

17:30

Txokolate jana.

17:45

Buruhandiak.

18:00

Disko Txiki Mikeltxi DJ-arekin.

19:30

Afari merienda: txorizo eta hirugiharra.

20:00

Kontzertua: Radio Rebelde.

22:00

Mikeltxi DJ-a.

IGANDEA 14

10:30

Ping-pong finala. Izen ematea: Buenavistakojaiak.com.

11:30

Toka txapelketa.

Haurrentzako marrazki lehiaketa.

Gaia: 2027ko festen kamiseta diseinua.

12:30

Buruhandiak.

14:30

Herri bazkaria, Euskal Parrillarekin.

16:00

Bingoa.

17:00

Mus txapelketa.

18:30

Antzerkia: *Munduari itzulia 80 egunetan*.

Jaien amaiera.